

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, KIROLAREN HIRIA

Kirolaren alorrean, Getxo gure inguru guztiko eta gure lurraldeko eredu eta erreferente da. Gure instalazioak, gure kirol-politikak eta kirol-klubek nahiz -elkartek Getxo Kirolakekin egiten duten lan zoragarria direla-eta, izugarriko lan-sarea dugu, kirola, osasuna eta gizartearen uztartzen dituen.

EAJ-PNVk kirola sustatzeko konpromiso nabarmena du, getxoztarron bizitza osasungarriaren ohituren ardatz estrategikoa baita. Gure hauteskundeetako konpromisoetako bat honakoa zen: *“Fadura Kirol Parke Barria, atletismo, errugbi eta txirrindularitzako tribuna berriarekin, eta Garagardotegia, funtzio anitzeko kirol-eta gizarte-ekipamendu berri gisa. Klubekin eta kirol-elkartekin egiten dugun lana sendotuko dugu, Getxoko kirol-instalazioak eta proposamenak garatuz eta eguneratuz”*. Horixe da gure konpromiso estrategikotako bat, Getxok jarraitu dezan hiri zora-



garria eta ilusio handien sorleku izaten. Gure konpromisoak betetzen ari direla ikusten gabilta. Garagardotegi historikoaren eraikina aurrera doa eta egi bihurtuko dela iragarri dezakegu jada. Ekipamenduak berritzeari dagokionez, aipatu beharrekoa da ere Fadurako pi-

lotalekuen eraikinaren egitura sendotuko dela. Badakigu arazo bat dagoela pilotalekuetan eta, azkenik, aurrera egingo dugu pilotalekuen eraikinaren kanpoaldea sendotzeko lanetan; 2,5 milioi euroko inbertsioa egingo dugu, eta barrualdea eraberrituko dugu ondoren.

Halaber, Bolue 1, 2 eta 3 zelaietako sropil artifiziala, erabilera anitzekoa eta Gobela berrituko ditugu.

Kirola barne hartzen duen bizimoduarekiko konpromisoa dugu; izan ere, erakinetan eta instalazioetan ez ezik, kirola erdigunean jartzen dugu ere Getxoko klubekin, elkarteekin, erakundeekin eta kirolariekin etengabe egiten dugun lanean. 2023-2027ko legegintzaldian oinarrizko beste apustu bat egin dugu, eta horren adibide bikaina dugu kirola egiteko orientazio-zerbitzu berria, zeina doakoa baita eta herritar guztiei zuzenduta baitago. Ezarri berri den zerbitzua da eta Getxo Kirolakek sustatzen dituen ikastaro eta jarduerak guztiei buruzko informazioa jaso da bertan, bai eta Getxoko klubekin eta elkarteekin egiten dituen ere. Oraina hobetzea etorkizuna hobetzeko. Getxoko EAJ-PNVk hartutako konpromisoaren ardatza da oraindik ere.



SEGURTASUN-GABEZIA GETXON

Getxo udalerriko herritarrek geroz eta kezka handiagoa dute segurtasunari dagokionez; izan ere, udalerriko auzo askotan etengabe ugaritzen ari baitira lapurretak. Gaizkileen jomuga dira etxebizitzak, sarritan lapurtzen dituzte mugikorrak, eta geroz eta ohikoagoa da kaleetan atso-agureei lapurtzea.

Testuinguru hori aintzat hartuta, PPko kideok berretsi nahi dugu getxoztarrek jasaten duten segurtasun-gabeziari amaiera emateko dugun konpromisoa.

Lortu berri den aurrekontu-akordioa-

ri esker, aurreikusitako beste hamasei agente kontratatzea, eta benetan espero dugu etorkizunean ere gure polizien plantilla handitzen jarraitzea.

Horrez gain, nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela agenteen baliabideak eta ekipoak hobetzea gorputzeko kame-ekin eta taser pistolekin.

Halaber, polizien deszentralizazioaren alde egiten dugu, polizien presentzia areagotu dadin kalean, eta proposatu nahi dugu auzoko polizia-etxea jartzea Areetan eta Andra Marin.



ehbildu

AUZO-BILERA ITSASADAR AZPIKO TUNELARI BURUZ



Ostiral honetan, otsailak 9, EH Bildutik auzo-bilera antolatuta dugu itsasadar azpiko tunelaren inguruan. Izan ere, proiektu honek ondorio larriak izan ditzake gure herriko auzokideengan, eta kezka nabaria da: Aldundiaren ingurumen txostenak berak onartzen du trafikoa %33 handituko duela, zarata izugarri areagotuko duela (3 metro baino gehiagoko pantailak jarriko dira), Artaza parkea eta Artaza-Romo institutuaren zati handi bat suntsituko duela, gaur egungo oinezkoen pasabideak desagerraraziko dituela... Eta hau guztia 450 milioi euro baino

gehiago xahutuz, bestelako lehentasun eta beharrezan ditugun arren, besteak beste, Osakidetza hobetzea. Aldundiak sustatu duen proiektu honen aurrean (EAJk eta PSEk bultzatuta) dagoen desinformazioa ikusita, EH Bildutik auzo-bilera antolatzea erabaki dugu, **otsailaren 9an, 18:30ean RKE Romo Kultur Etxean**.

Horrez gain, astelehenean, otsailak 12, solasaldia antolatu dugu beharrezkoa ez den beste proiektu baten inguruan, kasu honetan, Guggenheim Urdaibai. 18:30ean Bilgunean (Salsidu, 18) ikusiko dugu elkar!



GIZAKIDETZA: HERRITARREN EREDUA ERALDATZEKO KONPROMISOA

PSE-EE alderdiko kideok eredu soziosanitarioa eraldatzeko eta ongizate-estatuaren benetako oinarri bihurtzeko konpromisoa hartu dugu; doakoa eta publikoa den zaintzen sistema nahi dugu, osasun-arretaren antzeko tratamendua eskaintzen duena. *“Gizakidetza”* deritzo sozialistok bultzatzen dugun zaintzen proiektua, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema** aurreratua, **iraupen luze**ko zaintzen erronkari erantzuten diona, betiere **pertsonen autonomia lagunduko duten** esku-hartzeak, zaintzak eta laguntzak oinarritat hartuta. Helburua da senideek haien erantzukizuna

bete ahal izatea haien lanari, aisialdiari eta osasunari uko egin barik.

PSE-EEen **gizarte-zerbitzuen eta zaintzen kalitatea** bermatu nahi dugu, **geroz eta zaharkituago dagoen gizarte baten beharrezan erantzute aldera**. Horiek horrela, epe luzeko zaintzetan desberdintasuna eta eraginkortasunik eza desagerrarazi nahi ditugu, **horren feminizatuta eta prekarizatuta ez dagoen eta garestia ez den sistema lortzeko bidean aurrera egiteko xedearekin**.



PUBLIKOAZ HARRO

Honetan egunotan Getxoko ehunka familia daude eskolan matrikulatzeko prozesuan murgilduta eta eskola publikoa aukeratzera animatu nahi ditugu. Izan ere, seguru gaude neska-mutil guztiak berdinak direla eta hezkuntza berbera merezi dutela: euskalduna, inklusiboa eta kalitatekoa; hori guztia, berdintasunean oinarrituta ikasi dezaten eta gizarte kohesionatua lortu dezagun.